

K...eta Kitto!

2017-IV-7

1.011 zkia.



Gabon! korrika



Toribio Etxebarria, 1

EUKI
servicios inmobiliarios

20 urtetik gorako esperientzia eskaintzen dizuegu balorazioetan eta eraikinetako salerosketa, alokairu eta traspasorako bitartekotzan



bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA:

943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA:

943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Fernando Oregi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA:

8.100 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Acua-Bike promozioa hiru hilabeterako –

Eibarko Kirol Patronatoak Acua-Bike kirola egiteko modalitatea eskainiko die eibartarrei. Promozioak apirilaren, maiatzaren eta ekainean iraungo du eta hilabete horietako azken barixaku eta zapatuetan doan probatzeko aukera izango da. Bestela, bi aukera eskaintzen ditu: astean saio bakarrekoan edo bikoan izena ematea. Acua-Bike egiteko ordutegiak honakoak dira: astelehenetan,

13:30ean eta 16:15ean; martitzenetan, 10:15ean, 11:00etan eta 20:45ean; eguztenetan, 13:30ean eta 16:15ean; eguenetan, 10:15ean, 11:00etan eta 20:45ean; barixakuetan, 09:30ean (doako promozioa); eta zapatuetan, 09:15ean (doako promozioa). Saio bakoitzak 40 minutuko iraupena izango du.

Eibarko Kirol Patronatoa

Aste Santua dela-eta, **datorren barixakuan ez duzue alerik izango zuen buzoietan.** Hurrengo zenbakia ondorengo asteko barixakuan, hilaren 21ean, jaso ahal izango duzue. Ondo pasa bitartean.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LIKA. Txoriak harrapatzeko arbola adarretan jartzen den kola antzekoa. “Likiagaz jua diru txoritxara, gaur eskolarik ez danetik”.

LIKIN. Itsaskorra, oso erraz itsasten dena. “Koipia jausi da lurrera eta likiñ-likina dago dana”. Lodia, gaztelerazko “viscoso”. “Gaur morokillak likiña urten dau”.

astean esanak

“Ordenagailuaren aurrean igaro ohi ditudan hamar ordutik zortzi itxita askoz hobeto legokeen webgune txatxu baten sustapena egiten ematen ditut. Duintasunik gabeko jardura da, munduari zarata desatsegina eranstean dio eta, sarean galduta dabilenak nik idatzitakoei kasu eginez gero, denbora alferrik xahutu baino ez du egiten. Ez nago bakarrik itsasontzi honetan. Hiru enplegu atari ikuskatzen nator eta zerrendatzen ziren iragarkietatik bi herenetik gora inork bete beharko ez litzukeen lanpostuenak ziren: *community manager*-ak, komertzialak,

prentsa arduradunak, publizistak, finantza-analistak, traderrak, aholkulariak, harreman publikoetan espezialistak, bankariak, *coach*-ak... Desagertzearekin onura besterik ekarriko ez luketen lanpostuen multzoa amaigabea da, eta hazten jarraitzen du. Txakurrak gustura asko bizi dira ile-apaindegira joan gabe. Gozo-dendek eta iturgindegiek Facebook erabiltzeko mintegietan izena ematea aberrazioa da. Autobideak haizeak garbitzen ditu. Gizakiaren irudimena mugagabea da zoritxarrez, eta mendeak eman ditzakegu errealtate ukaezina onartu gabe: behar baino askoz lan gehiago egiten dela, webgune txatxutik hasita”
(DANIEL AGIRRE, ZUTABEGILEA)

“Depresioa orokortu egin dugun gizartea da gurea, zoriontsua izateko agindua gureganatuz. Lehen ideala genuen helburu eta horrek batzen gintuen; orain, objektuak gozatu behar dugunez, isolatu egiten gara. Gure modukoekin egon nahi dugu, gure bizitza estiloari jarraituta. Horrek arrazismora eta xenofobiara garamatza. Ez dugu onartzen gure moduan bizi ez izatea. Hori bai, urruti bizi bada txundituko gaitu akaso; exotismoaren erakargarritasuna hor dago. Baina aldameneko logelara badator, gure egoa mehatxatuta sentituko da: ez daki gozatzeko gure erara eta, hori gutxi balitz, gainera gure lepotik bizi da”
(MANUEL FDEZ. BLANCO, PSIKOANALISTA)



PEDRO ALBERDI

Txantxazelai (I)

Aldian behin, malenkoniak jotzen nauenean, Txantxazelaiko web-orrira sartzen naiz antzinako futbol-argazkiak ikustera, eta beti topatzen dut uehetasunen bat, sekula erreparatu gabea, edo aspaldi ahaztutako pasadizoren bat, edo oroi penen bat, bat-batean berpiztua.

Argazki horietako batean galtza motzetan ageri naiz, mutiko-errenkada baten erdian, denok zutik eta besoak tolestuta. Ohiko argazki bat, partidua hasi aurretik ateratakoa. Kontua da gaur arte ez dudala talde hori identifikatzerik lortu, ez haren izena jakiterik, ez eta albo banatan ditudan jokariarik (Rodolfo Rico, Irusta, Ojanguren,...) sekula taldekide izan nituela gogoratzerik ere.

Argazkia, memoriak huts egiten ez badit, *Corazonistasekin* Txantxazelain debutatu nuenekoa da. Partiduaren aurreko orduak ez ziren samurrak izan, alajaina! Eta ez bakarrik debutagatik. *Corazonistasen* jokatzeari ez zegoen ondo ikusita gure artean, ikastetxearen eta fraideen alde lehiatzea zelako. Eta izan ere, halaxe zen. Sentimendu kontrajarriak nituen: alde batetik lotsa-lotsa eginda banangoen ere, bestetik, ez nuen Txantxazelain jokatzeko aukera hura galdu nahi.

Begi guztiak nire gainean somatzen nituen. Baina arbitroak hasteko txistua jo zuenean, larria moteldu egin zitzaidan, eta handik aurrera ez nintzen kezkatu baloiaren nondik-norakoaz baizik.

Azkenean, 6-3 galdu genuen Izarraren aurka. Hala ere, ez zen debut txarra izan. Partidu hura hautsita zegoen hasi aurretik; zalantza bakarra zen zenbat gol sartuko zizkiguten. Izarrakoak (Patri Olabe, Txirrio, Txintxu,...) gu baino bizpahiru urte zaharragoak izateaz gain, burua kentzen ziguten altueran, ilea zeukaten hanketan eta azken txapeldunak ziren.

Errefuxiatuen aldeko pintxo-potia Zaporeak-en eskutik

Beste toki batzuetan egindakua bidetik, Eibarren be ekitaldi berezixa antolatu dabe Zaporeak proiektuko ordezkariak, Euskal Herriko Itzuliaren aitzakixarekin. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, alkartasun pintxo-potia egingo da Untzagan, Grezian duguazzen Siriako errefuxiatueri laguntzeko dirua batzeko asmuarekin. Pintxo-pote hori egin ahal izateko, ekimeneko arduradunak herriko ostalarixengana jo dabe lagun-tasun eske eta ekimenarekin bat egittera animau diran tabernak Koskor, Kultu, Konten, Slow, Chic, Cepa, Ongi Etorri, Bar Nuevo, O'jais, Arkupe eta Hirurok dira. Horrekin batera, Idiazabal Jatorrizko Izendapenak Mausitxaren lau gaztai emongo dittu, bixar be egingo daben pintxo-poterako. Bixar, pintxo-potia antolatzia ez eze, elikagaixak batzen be jardungo dabe. Eta, ekitaldixaren harira, jokolari guztiak siñatu daben Eibar KE-ko kamiseta bat eta Itzuliaren garailliak siñatutako bere maillota be zozketatuko dittue zapatuan, Itzulia amaitsu eta gero.



asteko
121.365
datua

bisitari hartu zittuen liburutegixan 2016xan, batezbeste 392 lagun egunian; urtian egindako mailleguak, barriz, 42.796 (batezbeste 147 egunian); izen-emonda 11.736 lagun, Eibarko biztanlien % 42'68 dagoz; eta interneten 15.893 bisita erregistrau ziran gaztelaniazko orrixan eta 9.061 euskerazkuan.



Zuhaitz Egunian 40 arbola landatu zittuen Usartzan

Eibarko Udalaren Ingurumen Arluak, Eibar-ko Klub Deportiboko Mendi Taldiarekin eta Debegesarekin alkarlanian, Zuhaitz Eguna-ren inguruan ekitaldixa antolatu eben aurreko domekan. Eurixa egiñ arren, argazkixan ikusten dozuen taldiak goiza emon eban Usartza aldian, udalaren lursail batian 40 arbola landa-

tzen. Lizarrak, gorostixak, haritzak eta urkixak, lau espezie horrek sartu zittuen eta, behin biharra amaittuta, hamarretako edarra egin eben etxerako bidia bueltan hartu aurretik. Ekimenarekin jendiak arbolon garrantzixaren inguruan konzientzia hartzia billatzen dabe antolatzailliak

Batzar Nagusixa amaituta, bazkarixa euki eben Unzaga Plaza hotelian.



Armerixako Ikasle Ohien alkartiak zuzendaritza barriztatu dau

Armerixa Eskolako Ikasle Ohiak LXVII. Batzar Nagusixa egin eben aurreko aste- teko barixakuan eta ekitaldixan zuzen- daritza barrixa aukeratu zan. Aurreran- tzian alkarteko presidente kargua bete- tzen Natividad Garciak jardungo dau. Presidente izendatu barrixak Armerixa Eskolan ikasi eban eta ikastetxian Elek- tronika titulua lortzen lehelengua izan

zan 1985. urtian. Teknikerrekin loturia ze- kan enpresa batian hasi zan biharrin eta, geruago, transformaziño digitalare- kin zerikusixa dakan bere enpresia sortu eban. Zuzendaritza barrixa osatzera sar- tu diranak, barriz, eskualdian erreferen- te diran enpresetako (Etxetar, Sariki, Mi- crodeco, Jaz Zubiaurre, Biele eta Tekni- ker) ordezkariak dira.

autuan

BOLATOKIXA ALOKAGAI

Kantabriako Etxekuak Ipuruan daken bolatokixa alokagai ipiñiko dabe eta interesa dakeneri alokairuan hartu ahal izateko eskatzen detsazen baldintzak honek dira: alkarteko bazkide guztiak eukiko dabe eskaeria egitteko aukeria eta aurkeztu biharreko dokumentaziñua jasotzeko epia apirillaren 26ra artekoa da. Informaziño gehixago eskatzeko 661 974 356 (Valentin Cabanzon) telefono zenbakira deittu edo Kantabriako Etxiak Jardiñeta kalian dakan tabernara juan.

ASTE SANTUA AZITTAINEN

Aste Santua dala eta, Azittaingo elizan hainbat ospakizun berezi egingo dittue datozen egunetan: asteburu honetan, Erramu Domekia dala eta, 11:00etan erramuen bedeinkapena eta prozesiñua; Eguen Santuan, 17:00etan, Jaunaren Azken Afarixa; Barixaku Santuan, 17:00etan, Jaunaren nekaldixa eta heriotza; Zapatu Santuan, 17:00etan, Pazko Gaubeila; eta Pazko Domekan, Jaunaren piztueria ospatzeko, 11:00etan meza nagusixa egingo dabe.



Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

B. Sarasketa, 1 ac **943 12 82 31**

Kafea, opilak, ogia, pintxoak, ardoak...

Gozatu **EIBARKO**
PREZIORIK ONENEKIN!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLONDO

LABADEROKUA Egunero **06.00** etatik aurrera

Etxe-Lan

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK





ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97



Arraiña eta okelia erostian tupperrak erabiltzeko kanpaina hasi da

Arraindegi eta harategietan erosketak egiten ditudunian ohikua diran paper eta plastikozko poltsak murrizteko eta, horren ordez behin baiño gehixagotan erabili leikiazan ontzi edo tuperrak erabilleria bultzatzeko asmuarekin, Kutxa Ekoguneak eta Eibarko Udalak "Ontziratu zaitez!" izeneko kanpaina hasi dabe aste honetan, eguaztenian herritarrei kanpaina buruzko informaziñua banatzen ibilli dira Untzagan. Horrekin batera, kanpaina martxan egongo dan sei hillebetiotan zihar, herriko dendetan erosketak egiteko ontzi berrerabilgarrixa darabizenak zozketa berezixetarako txartelak lortuko dittue. Hillian behin, 25 euroko balixua daken produktuen zozketia egingo dabe denda bakotxian eta, beraz, hillero saritan ia 500 euro banatuko dittue Eibarren.

Kontu guztiak jendiari azaltzeko, egunotan kanpaina buruzko informaziñua banatzen ibilli dira Untzagan. Horrekin batera, kanpaina martxan egongo dan sei hillebetiotan zihar, herriko dendetan erosketak egiteko ontzi berrerabilgarrixa darabizenak zozketa berezixetarako txartelak lortuko dittue. Hillian behin, 25 euroko balixua daken produktuen zozketia egingo dabe denda bakotxian eta, beraz, hillero saritan ia 500 euro banatuko dittue Eibarren.

Bigarren pausua herritarrek erosketak egitera doiazten tupperrak erabiltzera animatzia litzake. Esandakuaren arabera, "norberak bere tupperrak erabiltzeko aukeria daka edo, bestela, kanpaina-rako sortutako ontzixak be egongo dira eskuragarri, 0'5 eurotan".

Kontu guztiak jendiari azaltzeko, egunotan kanpaina buruzko informaziñua banatzen ibilli dira Untzagan. Horrekin batera, kanpaina martxan egongo dan sei hillebetiotan zihar, herriko dendetan erosketak egiteko ontzi berrerabilgarrixa darabizenak zozketa berezixetarako txartelak lortuko dittue. Hillian behin, 25 euroko balixua daken produktuen zozketia egingo dabe denda bakotxian eta, beraz, hillero saritan ia 500 euro banatuko dittue Eibarren.



Saharako umiak udan hartzeko kanpaina amaitziaz

Saharako kanpamenduetako umiak udan etxian hartzeko Oporrak Bakean kanpaina azken txanpan sartu da. Famelixaren bat udako bi hillebetian 10 eta 12 urte bitarteko neska-mutilen bat etxian hartzeko prest egonez gero, Eibar Sahara Elkartekuekin lehenbailehen kontaktuan ipintzia eskatu dabe, izen-emotiak hillaren erdialdera itxiko dira eta. Horretarako alkartaren Facebook (es-es.facebook.com/eibarsahara.elkar-tea) orrixa erabili leike edo, bestela, 659591607 telefono zenbakira deittu (Edurne).



Tatuajekin bildutako dirua jaso dabe Berritxuak eta AFESD alkartekuek

Martxoko azken zapatuan Untzagako jubilaue etxian egin zan "Los tatuajes marcan la diferencia" alkartasun tatuajiak egiteko jardunaldixa benetan arrakastatsua izan zan. Eibarko Aratattoo estudixoko Javi Garcaren ekime-nez antolatutako ekitaldixan zortzi tatuatzaillek hartu eben parte eta, egun osuan biharrian ibilli eta gero, 5.500 euro baiño gehixago biltzia lortu eben. Argazkixan ikusi leikian moduan, batutakuaren erdixa Berritxuak alkartekue-ri emon detse eta beste erdixa, barriz, AFESD alkartekue-ri, gaixotasun arraro eta diagnostiko barikuen inguruan egiten daben biharrekin segidu deixen.



Maite Agirregomezkorta Zubiaurre

I. URTEURRENA: 2016-IV-3

*Ez agurrik,
ez adiorik,
gero arte baizik.*



Errenta aitortenaren kanpaiñiak ekaiñaren 26ra arte iraungo dau

Errenta aitortenaren kanpaiña hasitta dago eta autoliki-daziñorako proposamenak etxietara bialtzari be ekin zetsen martxuaren 31n. Gipuzkoako Aldundiak 250.359 autoliki-daziño proposamen bialduko dittu aurten: horretatik 173.073 itzultzera izango dira eta 77.286, barriz, ordaintzera. Autoliki-daziñuarekin ados egonez gero, hori onartzeko bide diferentia dagoz: 902 10 00 40 telefonora deittu leike edo, bestela, edo ogasunaren web orrixan (www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta) sartu eta hor azaltzen diran pausuk segidu.

Errenta aitorten mekanizaturako hitzorduak be telefono eta helbide bi horretan eskatu ahal izango dira, apirilaren 11tik (datorren asteko martitzenetik) aurrera. Guztira 376.000 aitorten egittia espero dabe arduradunak, gehixenak (221.000 inguru) autoliki-daziño bittartez. Batezbeste, 1.030 euro bueltauko detsez Ogasunak aitortena itzultzera dakan zergapeko bakotxari. Aldiz, 1.906 euro ordaindu biharako dau pagatzera dakan zergapeko bakotxak.

Araueri begira, PFEZren kanpaiñiak hiru aldaketa na-



gusi dittu oinguan. Batetik, enpresako akziñuak erosten edo saltzen dittuen bihargiñendako kenkarixak hobetu dira, hain zuzen be, bihargiñen partaidetza sustatzeko foru araua onartziaren eragiñez. Bestetik, minbizixa edo bes-telako gaixotasun larriren bat dakenen zaintzari lotutako di-

rulaguntzak, baita eskola kiro-lari lotutako hainbat jardue-ra be, lehelengoz pagatzetik salbuetsita geratuko dira. Azkenik, zoru klausuleri dagokixonez, bueltautako kopuruak ez dira zerga oiñarrira gehittuko, baiña aurreko ekitaldixetan erabillitako kenkarixak berrikusi biharko dira.

Sanjuanetarako kontzertua proposatzeko galdeketia kalia

EGI-k, EAJ-ren gazterixiak, Sanjuanetarako kontzertuen inguruko galdeketia ipiñi dau martxan, Eibarko gaztien eritzi eta proposamenak jasotzeko. Orokorrian hartuta, Sanjuanetako egitarau ofizialak gaztiak gitxi asetzen dittuala pentsatzen dabela diñue.



Iker Laka Eibarko EGI-ko idazkarixaren berbetan, "Udal Gobernuak akomodata dago eta ez da kapaz jaixetan barrikuntzarik planteatzeko". EGI-k proposatzen daben galdeketia apirilaren 14ra arte betetzeko aukeria egongo da <https://goo.gl/forms/rbb54HrYG4WmSiMy1> webgunian, baita Eibarko EGI-ren Twitter eta Facebook kontuetan be. Galdera zihetz bi bota dittue, nahi dabenak horri erantzun eta holan jendiaren proposamenak jasotzeko. Izan be, gai honen inguruan eztabaida sustatzia premiñazkua dala begittantzen jakue, gazterixandako kontzertuen eskintza ofiziala motz geratzen dala pentsatzen dabelako.

Gure Esku Dagok txosnia zabalduko dau gaur

Gaur arratsaldian zabalduko dabe Gure Esku Dago taldekuak txosnia Untzaga plazan, gabiangure herrixa ziherkatuko daben Korrikaren aitzakixarekin. Euskeriaren aldeko lasterketia 22:45ak aldera pasatzia aurrekixitta dago eta, aillegau bittartian batenbat gosetuz gero, bokadillo edo pintxoren bat jan eta zeozer edateko aukeria eukiko dau. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera egongo da zabalik txosnia, gaberdira arte eta zabaldu bezin pronto txokolatadia eskintzeko asmua dake.

GURE ESKU DAGO TXOSNA
APIRILAK 7 de Abril
UNTZAGA

ANIMATU ETA HURBILDU!
GIROTSU KORRIKA!

17:00 Txosnaren irekiera eta txokolatada
Apertura de la txosna y chocolatada

00:00 Txosnaren itxiera
Cierre de la txosna

OGITARTEKOAK, PINTXOAK eta EDARIA
BOCADILLOS, PINCHOS Y BEBIDA

GURE ESKU DAGO

SABINA MAGUREGI MANDIOLA

I. urteurrena: 2016-IV-7



*Zerutik ere eskaintzen diguzun maitasunak
lagundu eta babestu egiten gaitu egunero.
Gurekin jarraituko duzu betirako.*

ETXEKOEK



Eibarko Gazte Asanblada

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Gazte Asanblada gaztek antolatutako kolektiboa da. Gaztetxean biltzen den talde autogestionatua. Orain dela 5 urte okupatu zen gaztetxea, baina aurretik ere asanblada bizirik zegoen. "Udalak jarritako oztopoak gaindituz, gure helburua gune aske eta alternatiboa sortzea izan da, kultura eta aisialdiarekin lotutako jarduerak eskainiz". Gaztetxean proiektu asko eraman dira aurrera: jolas-eta jantzi-bilketa behar dutenei emateko, gimnasioa, serigrafia-gela, entsegu-gela... Ideiak eta proiektuak denon artean aurrera eramateko dago asanblada. Horretarako asteazkenero biltzen dira, 19:00etan, gaztetxean bertan. Animatu eta etorri!

Ekintza nagusiak

- Kontzertuak.
- Plazatik gaztetxera (bertso txapelketa).
- Tatroo Circusa.
- Gaztetxian okupazioa.
- Tailerrak.

helbidea: Iparragirre kalea, 2
e-maila: eibarko_gazte_asanblada@hotmail.com
facebook: Eibarko Gazte Asanblada



Gazte Asanbladako gazteek hainbat proiektuetan hartzen dute parte.

Eibarko Kantuzaleak

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Orain dela 3 urte eta erdi inguru sortu zen Eibarko Kantuzaleak taldea. Eibarren ez zegoen erreperitorio osoa euskaraz zeukan abesbatzarik, eta asmo horrekin –bakarrik euskal kantuak abesteko asmoarekin– sortu zuten taldea. Apurka-apurka jende gehiago joan da batzen, eta gaur egun 25 kide inguru dira, denak emakumeak. Eibarren izan duten harrera eskertu nahi dute, eta taldea euskal kantuak abestu nahi dituen edonorentzat zabalik dagoela argi laga dute. Kalejirak egiteaz gain, euskara hedatzeko antolatzen diren ekitaldietan parte hartzen dute eta herriko jai eta jarduera berezietan ere izaten dira. Taldea federatuta dago, eta Euskal Herriko kantuzaleen topaketetan parte hartzen du (Bilbo, Gernika, Otxandio, Biarritz, Donostia...). Ekainean, Gasteizera joango dira. Elgetako kantuzaleak Eibarrera etortzen dira sarritan elkarrekin abestera, eta trukean eurak ere joaten dira.

Ekintza nagusiak

- Herriko jaietan parte hartzen dute.
- Eibarko elkarte edo taldeek antolatutako ekitaldietan izaten dira.
- Hilean behin kalejiran irtetzen dira.
- Ospitalean eta Erresidentzian emanaldiak..

telefonoa: 678 85 65 25
e-maila: maricarmencendoya@gmail.com
entseguak: Eguaztenetan, 19:00etan, San Andres elizan



Gaur egun taldean emakumeak bakarrik izan arren, gizonentzako ere dago zabalik taldea.

Apirilaren 25ean eskola-jazarpena edo "bullying-ari" buruzko hitzaldia eskainiko dute Portalean, Bidelagun elkartearen eskutik, 14:30etik 16:30era. Hizlaria Nerea Mendizabal psikopedagogo, gizarte hezitzailea eta komunikazioan aditua izango da. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko miren.bidelagun@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

NEREA MENDIZABAL (Psikopedagogo):

"Bullying kasu baten atzean pertsonak daude eta guztiei lagundu behar diegu"



– Zertaz hitz egingo diezu hitzaldira joaten diren guraso eta hezitzaileei?

Jazarpen egoera baten aurrean, gurasoek, irakasleek eta hezitzaileek hartu nahi dugun jarrerari buruzko lanketa bat egingo dugu. Jazarpena egiten diharduen haurrari, jazarpena jasotzen ari denari eta konplize edo ikuskatzaileei nola begiraten diegun aztertuko dugu. Orokorrean denei etiketa jartzen diegu automatikoki: "*hau biktima da, beste hau erasotzailea, hauek lekukoak...*". Eta etiketa horien arabera hainbat jarrera hartzen ditugu, batzuk "onak" eta besteak "txarrak" bezala ikusten ditugulako.

- Etiketatzea, beraz, arriskutsua izan daiteke?

Etiketatzak inpaktu handia du pertsonengan, batez ere haurtzaroan eta gaztaroan. Kanpoko begiradak esaten badio halako edo horrelakoa dela, berak sinistu egiten du, eta bere sistema emozionala horren inguruan funtzionatzen hasiko da. Zenbat eta gehiago esan "*zu alferra zara*" edo "*zu erasotzailea zara*", orduan eta arrazoi gehiago emango diogu horren arabera jokatzeko. Etiketa horiek haur edo gazteengan daukaten eragina kuestionatzeaz gain, jotzen, iraintzen edo baztertzen ari den ume edo gazte hori agresorea edo zapaltzailea baino zerbait gehiago dela azaldu nahi dut. Egia da momentu batzutan jazarpena egiten ari dela, eta ez zaigula gustatzen, baina pertsona bezala hori baino askoz gehiago da.

- Eta zer gertatzen den jazarpena sufrizten ari denarekin?

Gauza bera esan dezakegu. "*Hau biktima da*", "*gizajoa*", "*ikusitako zer egin dioten*"... begirada hori baldin badaukagu, berak ere hori sinistuko du. Eta hori baino gehiago da: ez da bakarrik mina jasotzen ari den haur edo gaztea. "Onak" eta "txarrak" klasifikazio horren atzean pertsonak daude, eta akzio zatarrak edo tragikoak egiten ari badira ere, zerbait ari zaie pasatzen hori egiteko. Jokaera konkretu horiekin asoziatu eta bakarrik horrekin gelditzen bagara, ez gara joango benetako arrazoietara. Marshall Rosenberg-ek esaten zuen bezala, "*egiten dugunarekin gure beharren bat asetzen ari gara*". Jazarpena egiten ari denak horrela jokatzen du ez duelako beste mediorik ikusten bere beharrak asetzeko (autoafirmatzeko beharra, garrantzitsu edo boteretsu sentitzeko beharra...). Ez badiogu laguntzen beste errekurtso batzuk biltzen, berdin jarraituko du. Aldi berean, jazarpena jasotzen ari dena, isilik dagoenean, ez dionean inori kontaktzen, bere beharren batzuk asetzeko hartu du jarrera hori, eta bere protekzioa, balorazioa eta konfidantzarekin lan egin beharko da. Beste horrenbeste gertatzen da lekukoekin edo "konplizeekin": euren beharrak asetzen ari dira (euren burua babesteko beharra edo taldeko kide izatearen beharra, esate baterako). Behar hauek, gazte eta haurren artean, jatea edo lo egitea bezain garrantzitsuak dira.

- Haur eta gazteen artean, nagusiekin gertatzen den bezala, liskarrak eta ga-

tzak izaten dira. Non dago liskarren eta bullying-aren arteko muga?

Arazo hau beti egon da eta egongo da, baina egia da izena jarri zaion momentutik kontzientzia handiagoa dagoela, kezka eta ardura gehiago dagoela. Gauza bera gertatu da emakumeen kontrako tratu txarrekin. Baina argi izan behar dugu haurren arteko liskar guztiak ez direla bullying-a. Gatazkak bizitzako zati bat dira eta horrela, konfliktuak bezala ulertuta kudeatu beharko genituzke, haur eta gazteei beharrezko erramintak eskainiz. Beste gauza bat da modu errepikakor batean, persona edo talde batek haur edo gazte baten kontra nahita jokatzen duenean, eta denboran irauten duenean.

- Ikastetxeetan bullying kasu bat dagoenean protokolo bat jartzen da martxan. Prebentzioan indar gehiago jartzea beharrezkoa ikusten duzu?

Oso inportantea da eskoletan protokoloa martxan jartzea. Jazarpena iizan dutenek eta euren familiek laguntza handia behar izaten dutelako. Baina Oesteko pelikula bat bezala ez ikuste gustatuko litzaidake niri, "txarrak" eta "onak" bezala ez ikustea, alegia. Jazarpena egiten duen umea, eta baita familiar ere, lagundu egin behar zaie, denon beharretara iristeko. Ikastetxeak hor dabilta prebentzio alorrean gauzak egiten (hitzaldiak, tutoretzak...) baina nire beldurra da jarduera hauek "partxeo" bezala geldituko ote diren. Prebentzioan lan handia dago egiteko.



Oin dala mende bateko bihargiñak

Hona hamen Felix Luengoren ekarpen historikua. Bertan Euskal Herriko eta, batez be, Eibarko bihargiñen gaiñian atzerritar batek esandakua jasotzen da. Louis Martin soziologo frantsesak idatzitako liburua 1919an argitaratu zan eta Jacques Valdour gatzizenarekin siñatzen zeban egilliak 1912xan eta 1913an Espaiña aldian egindako biájia kontatzen dau. Gure herrixan tornero egin zeban arma taillar batian, 1913ko abuztuaren lehen hamabostaldixan. Hárek egunak eskindu zetsen zer kontatu, "trabajo de campo" deitzen dan horretan lotutako esperientzian oiñarrittuta batez be.

"Eibar euskal mendixetako tolesturen artian ezkutututako herrixa da, 11.000 biztanliekin. Eurretako 3.000 damaskinuan eta suzko armen fabrikaziñuan egitten dabe biharra eta ixa danak sozialistak eta libre pensadoriak dira. Hori bai, sozialistak izanda be, Eibarko bihargiñak destajuan jardutiaren aldekuak dira eta dan-danak praktikatzen dabe, diru gehixago irabaztiz gain independientiaguak izango diralakuan. Taillarraretako ordutegixak honakuak dira: 06:30etik 08:00etara, 08:30etik 12:00xetara eta 13:00etatik 18:30era, hau da, egunian hamar ordu eta erdiko jardunaldirak. Baiña piezaz pieza egitten dabenez lan, askatasuna dake biharra nahi danbenian egitteko.

Taillarrarian biharrian hasi nintzan egunian, nire patroiak eta enkarguak ondo esan esten moduan: "Hamen, bat nekatuta daganian ez da biharrera etortzen. Eibarkuak gizaki askeak gara". Astelehen batian, esaterako, bihargin bakarra heldu zan ordurako; enkargaua eta beste zazpi bihargin 10 miñutu eta ordu erdixaren arteko atzerapenarekin iritsi ziran, beste bihargin bat gosaltzeko ordua pasauta etorri zan eta azkenak



Astelehenetan jai hartzen zeban oin dala mende bateko Eibarko bihargiñak.

seiñalerik be ez zeban emon egun guztian. Egun bereko arratsaldian enkargaua eta sei bihargin 10etik 20 miñutura arteko atzerapenarekin azaldu ziran eta beste hiru agertu be ez ziran egin. Hamar bihargiñetik, lau agertu bez eta danak gaztiak ziran, 25-30 urte tartekuak. 14 urteko pintxia be biharra zeñnek asmatu zeban esanaz negarrez pasatu zeban arratsaldia".

Astelehenetan biharrik ez egittia nahiko zabaldua zeguan Eibarren eta horri buruz badagoz sa-soi hartako beste testu batzuk be. Toribio Etxebarriaren Memorietan esaten danez, "astelehenetan lanik ez egittia ixa instituziñua zan herrixan: taillarraren eta tabernaren artian ezkutaketan, bezperako ajiáz ezin errekuaperatuta". Eta astelehen horretan pelota partidurik, idi-probarik, ahari-jokurik baeguan, jendiak taillarretik urtetzen zeban iñolako erreparorik gabe, danak alkarrekin, ixa astelehenero. Horregaittik diño Toribiok berak frontoiari Astelena izena ipiñi zetsela.

"Badira lehen bihargiñak izandakuak gero ugazabak bihurtzen diranak be. Analfabetuak izaten jarraitzen dabe, bihargiñen ideia eta bizitza estiliuarekin, euren bihargiñok famelixakuak balira tratatzen dittue eta eurekin juaten dira kafía hartzera". Pensiño batian hartu zeban ostatu gure soziologuak, "beste hiru bihargiñekin: bat zapatarixa, Aragoikua; bestia gaztelaua, arotza zana; eta igeltserua azkena, euskalduna". Bertan jan eta lo egitteko 1,30 pezeta ordaintzen zan ohia konpartidu ezkerero eta 1,80 batena bakarrik bazan (urte hartako bataz besteko jorjala 3,5 pezetakua zan). Distrakziñuak be aittatzen dittu: "Zinia baeguan, zezen-plazia, frontoia, pasiua gabero eta musikia astian birritan". Eskandalizauta geratu zan bihargiñak gastatzen zeban diruarekin: "Domeketan Donostira juaten dira, egunpasa, hori trena hartzia bakarrik 3,75 pezetako kostua zekaln".

Egixa esan, eta Eibarren abuztuan egon zala kontuan izanik, hórrek biájioak batez be Aste Nagusira juateko izango zirala pentsau leike. Eta gauza bera bihargiñen seriotasun faltari erreparatzen badetsagu, nahikua egitten zebelako abuztuan taillarrera juanda.

Berak lan egin zeban taillarreko bihargiñeri buruz, bestalde, honakua diño: "Danak euskaldunak ziran, bakarrik euseria erabiltzen zeban, eta nirekin apenas egin zeban barbarik: ez baldin banenguan moduan tratatzen ninduten". Eibartarren religiñuaren kontrako jarreriak be atenziñua deittu zetsan: "Euskal Herrixa oso erlijiosua bada be, hamango bihargiñak -euskaldunak izanda- mezetatik paso egitten dabe eta gehixenbat emakumiak juaten dira dira elixara. Gehixago oindiokan, astelehenian jai hartzeko domeka goizetan biharra egitteko gauza dira".



JESUS GUTIERREZ
historialaria

Hori Eibarren? Ezinezkoa da!

Hiria birritan hustu zuten eta aurretik bizi zirenetik erdiak besterik ez zuten iraun. Babesten zuten soldaduek okupatuta zegoen hiria eta zazpi hilabetetan inguruko mendietatik setiatua euki zuten. Bide bakarra zegoen hiritik irten eta jatekoaz eta halakoez hornitzeko. Kanoikadak eguneroko kontua ziren. Etsaien hegazkinen hamabost eraso jasan zituzten, ia babesik ez zuten hirian: hamasei babesleku besterik ez, kili-kolozkoak, halamoduz egokituak... tren tuneletan, ibaiaren zubipeetan eta eraikitzen ziharduten etxeetan. Bonba apurtzaileak, su-piztailak eta eraikin barrenetan atzerapenarekin lehertzen direnak, 100 kilorainoko pisua zuten lehegailuak, 600 eta 800 metroko altueratik jaurtitzeko zirenak.

Guda-talde erasotzailearen sarrearen aurretik bonbardaketa basatiak izan ziren, ehundako hildakorekin. 150 lagun joan ziren garaileei harrera egitera, hiriak 13.000 biztanle izan zituenean. Beste guztiak erbestera jo zuten... edo borroka egitera beste fronte batzuetara. 488 eraikinetatik, 156 guztiz suntsituta geratu ziren eta beste 101 zatika; 1.756 etxeetatik, 840 bota egin behar izan zuten. Hiria birrinduta geratu zen, beharrezkoa izan zen 97.000 metro kubiko hondakin erretiratzea eta goitik behera berreraikitzeo premia ikusi zen.

Londres, Nuremberg, Leipzig, Dresde, Hamburgo, Korea, Sarajevo... Zein da hiri hori? Ez dago aipatutakoan artean. Eibate dugu, eta hilabete honetan beteko dira 80 urte Hitler eta Mussoliniren hegazkinak, Francoren aire indarrek lagunduta, gure hiria bonbardatu zutela.



Amaitu dira Antzerki Jardunaldiak. Berrogeigarren urtez, estatu mailan erreferentzia bihurtu den ekitaldia hartu du herriak, gaur egun euskara zein gazteleraz ikusi daitezkeen antzezlan nabarmenak jasoz. Horien artean egon da Rosa Martínez Alcocer aktore eibartarrak antzeztu duen 'Frida'. Fran Lasuen herrikidearekin batera, ikur mexikarraren bizitza ekarri du taula gainera. Pertsonaia berezia beretzat hain berezia den eszenatokian.

"Frida egitea oparia izan da niretzat"

rosa
MARTINEZ ALCOCER (aktorea)

– *Frida Khalorena egiten duzu, ez da gutxi!*

Demasa da! Lilurutzen nauen pertsonaia da Frida Khalo. Orain dela denbora asko maitemindu ninduen, bai emakume moduan bai bere bizitzak, baina antzerkira eramatea fantasia zen errealitatea baino. Ez nekien nola egin eta zein forma eman. Ez nekien, adibidez, monologoan antzeztuko nuela, azkenean izan den moduan. Humberto Robles mexikarraren testua jasoso eta zoragarria iruditu zitzaidan.

– *Ez zenuen birritan pentsatu?*

Oldartu eta aurrera egin nuen, maitemindu egin ninduelako. Lanbide honetan burua 'moztu' behar dugu batzuetan, ez pentsatu. Hainbatetan beharrezkoa da burua edukitzea, baina geldiarazten eta zugar sinestea uzten ez dizuten beldurrak badituzu, zure alde egin behar duen erraminta baino, oztopo bat da burua. Nik burua 'moztu' nuen Fridaren kasuan, bestela zalantzak izango nituelako eta ez nintzatekeelako seguru sentituko hain pertsonaia indartsua antzezteko. Bihotzak

esaten zidanari egin nion kasu eta momentu horretatik hasi nuen lan prozesua Paco Obregon zuzendariarekin.

– *Nolakoa izan zen lan prozesua?*

Oso arina. Pacok, antzezlanean biolina jotzen duen Fran Lasuenek eta talde guztiak aipatu dute prozesu magikoa izan dela. Ez da antzezteko erraza den lana, baina erraza egin zaigu. Gure artean bikain moldatu gara.

– *Zer suposatu du zuretzat Frida Khalo antzezteak?*

Plazerra izan da. 'Frida' egitea oparia izan da niretzat, maila guztietan. Pertsonaia guztien bitartez ikasten duzu beti eta honekin, zehazki, asko ikasi dut. Bizitzari aurre egiteko zuen modua, berak zituen zailtasun guztien aurreko erresilientzia, umorea, adimena, norberaren gainean barre egiteko zuen gaitasuna, bufoi kutsua ere bazuen, eta baita tragikoa ere. Dene-tarikoa da, pertsonaia guztiengandik zerbait duelako.

– *Fridaren bizitza bere margoak bezain koloretsua izan zen?*

Bere bizitza oso anitza eta bizia izan zen. Ez zuen bizitzeko ezer uzten. Inork baino gehiago maite zuen bizitza. Berak zeukan arazo fisiko eta psikologikoak, eta oso bizia eta kartsua izan zen harreman sentimentala kontutan hartuta, bere bizitza ez zen erraza izan. Hala ere, Frida zentzu guztietan konprometitzen zen, bizitza bizitzeko zuen eta honi ondo eusten zion. Ez da kasualitatea Frida margolaria izatea, kolorea eta bizitza maite zituelako. Edertasuna maite zuen. Bera zen modukoa adierazten zen margolanekin, hor zegoen bere egia guztia, biluztu egiten zen. Hori berebizikoa izan zait bere pertsonaia antzezteko orduan. Bere margolanak oso gogorrak dira, baina kolorez beteak, eta horrek ondo definitzen du bere bizitza.

– *Zer moduz joan zen Eibarko saioa?*

Eibartarra naiz, eta nahiz eta aspaldi bizi naizen hemendik kanpo, Eibarren ari-tzea oso berezia da. Beste egunean nire buruari galdetzen nion zergatik zen horrela. Institutuan Poxpolo eta Jesus Cimarrok antolatzen zuten antzerki taldean eman nituen lehen pausuak antzerki munduan, gero Eibar-Ermua antzerki tailerrean jarraitu nuen, Geroarekin egin nuen lehen antzeppen profesionala Antzerki jardunaldietan aurkeztu genuen eta Geroaren azken saioa ere bertan eskaini genuen. Beraz, antzerkia Eibarrekin oso erlazionatua dago niretzat. Eibarren ari-tzea gozagarria da eta etxean bezala sentitu nintzen. Fran Lasuenek ere gauza bera esan zidan. Bera ere aspaldi bizi da Eibartik kanpo eta bertan jardutea oso berezia izan zela aitortu zidan.


– *Antzerki Jardunaldiek 40 urte bete dituzte. Zer uste duzu ekitaldi horretaz?*

Beti da berezia Antzerki Jardunaldietan jardutea. Eibar bezalako herri batean 40 urtez Antzerki Jardunaldiek iraun izanak esan nahi du lan handia, esfortzu izugarria eta maitasun ikaragarria egon dela atzean. Mimo askorekin egiten dira jardunaldiak eta publiko fidela daukate. Guzti honek ospakizun eta zorionak merezi ditu.

Joanes Balenciaga (3. SpainSkills 2017-ean):

«Ez nuen espero holako lehiaketa bateko podiumera igotzea»

Armeria Eskolan Automatizazioa eta Robotika Industrialaren zikloa ikasten dihardu Joanes Balenciaga. Goi-mailako modulu horren bigarren mailan dabil orain eta hurrengo urtean lanean hastea du helburu. Balenciagak, hala ere, ez du itxaron ikasitakoa erakusteko. Euskoskillsen garaipena lortu ostean, brontzeko domina lortu zuen martxoaren 4an Madrilan egin zen Spainskills 2017-an Kontrol Industrialaren espezialitatean.



– Zein proba egin behar izan zenituzten SpainSkillsen?

Lehenengo egunean 'Automata 1500' bat programatu behar izan nuen; bigarrenetan, HMI pantaila eta 'G120 Bariatzailea' programatzea tokatu zitzaizkidan; eta hirugarrenean, aurreko egunetan egindako proba guztiak elkar-tu eta euren arteko komunikazioa egitea, eta koadro elektriko baten akats detektatzailea ere egin behar izan nuen.

– Zeren arabera ematen ziren puntuak lehiaketan?

Proba guztietan gehiegizko denbora bat zegoen, baina normalean azpitik amaitzen genuen. Kontrol Industrialean dena perfektu egitea oso zaila zen, eta dena perfektu edukiz gero bakarrik hartzen da denbora kontutan. Beraz, azkenean alderdi honek ez zuen emaitzan zerikusirik handirik izan.

– Zein helbururekin joan zinen bertara? Irabaztera?

Ez! Gure eskolak orain arte inoiz ez zuen parte hartu Kontrol Industrialean eta, ez zekien nondik nora ibiliko zen saioa. Beraz, prestatzeko orduan zailtasun pixka bat izan genuen. Ni ikus-tera joan nintzen SpainSkillsera, esperientzia hartzera. Lan txukunena egiten saiatu nintzen, baina ez nuen

espero podiumera igotzea. Gustura geratu ginen!

– Zenbat partaide izan zituen lehiaketak?

Hamahiru, bakoitza Autonomi Erki-dego batekoa.

– Irabazleak Abu Dhabin egingo den WorldSkillsen hartuko du parte. Pena ematen dizu hara ez joateak?

Bai! Baina tira, hirugarren eginda ere oso gustura geratu naiz, nahiz eta nahiago nukeen lehena izatea.

– Nolako bidea egin behar izan zuen Spainskillsera heltzeko?

Spainskillsen parte hartzeko EuskoSkills irabazi behar duzu, eta horrela egin nuen nik. Lehenik, Mekatronikan bigarren postua lortu genuen, binakako taldeetan; eta gero Kontrol Industrialean parte hartzea erabaki nuen.

– Lehiaketarako bereziki prestatu zinen?

Bai. Valentzian egindako proba hartu genuen eredu moduan eta hori kontutan hartuta entrenatu ginen. Irakasleak lanak jartzen zizkigun, helburuak jarri eta programatu egin genuen, eta aldagaiekin lan gehiago egin dugu. Nik programazioa kontrolatzen nuen, baina aldagaien kontua gehiago landu beharra neukan.

www.kolorlan.com

667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelese-tik euskarara.**

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

Disparate eta eskulan artean gaztelekuan sormena lantzen

Indianokua gaztelekuak, ohiko martxari jarraituta, jarduera ezberdinak antolatu zituen aurreko asteburuan ere, Muzategi kalean dagoen gazteei aisialdirako lokalera joandakoak entretenitzeko asmoz. Batetik, hilabeteko disparatea, "Dorrea desegin" izenekoa burutu zuten: kartulina batek bananduta dorrea osatzen zeuden hiru edalontziak bota barik, kartulinak kentzen joan ahala bata bestearen barruan sartzen joatea lortu behar zuten gazteek. Arduradunen berbetan, "ekin-tza arrakastatsua izan zen, 30 gazte parte hartzera animatu ziren eta. Gainera, froga amaitu eta gero ere behin eta berriz saiatzen ibili ziren, euren artean sortutako lehia tartean zela". Bestela, jokoan berez birritan saiatzeko aukera eman zieten neska-mutilei eta helburua betetzea lortu zutenak Ander, Aitor, Yaiza eta John Henry izan ziren. Horrekin ba-



tera, orri markatzaile ezberdinak egiteko tartea ere hartu zuten. Bakoitzaren sormen gaitasunaren arabera, egindako markatzaile guztiak bereziak izan ziren, baina kasu guztietan irudi politik egitea lortu zuten eta, gainera, gazteak irakurtzera animatzeko balio dezaketela kontuan hartuz gero, eskulan birila izan zen zantzantza barik!

Gaztelekuaren

6. urteurrenerako tailerra

Eta sormena aipatuta, egun gutxiren bueltan gazteek euren sormenari astindu ederra emateko aukera bikaina izango dute, Indianokua gaztelekuaren 6. urteurrena dela eta antolatu duten jarduerari esker: apirilaren 25 eta 28an poltsak, kamisetak, zapatilak... bakoitzak nahiago duena diseinatzeko "Astindu zure sormena!" izeneko tailerra emango dute, euskaraz, Eibarko Udaleko Gazteria atalaren ekimenez.

ZIRKORRIKA JAIA

antolatu dute gaztetxean gaur gauerako

Gauean Korrika herrira ailegatuko dela eta, horren aitzakiarekin Eibarko gaztetxean hainbat ekitaldi antolatu dituzte, "girotzen joateko eta euskararen aldeko lasterketari harrera beroa egiteko". Lekukoa hartzeko ordua ailegatzen denarako prest egoteko, 22:00etan hasiko dira mozorroak prestatzen, bakoitzak eramaten dituenekin eta gai modura "Zirkoa" hartuta. 20. Korrika, berriz, 23:00ak aldera pasatuko da gaztetxe paretik eta oraingoan Eibarko Gazte Mugimenduak (Ernai, Nalua, Gazte Asanblada eta Jaixak Herrixak Herrixandako) eramango du lekukoa. Eta antxitxiketal-dia agurtu eta gero, gauerdetik aurrera, Mugi Panderoa taldeak kontzertua emango du, euskararen aldeko ezinbesteko hitzorduari amaiera polit eta alaia emateko.



Errioxako bodegen DENBORALDIA



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



www.dariobus.com - clientes@dariobus.com

Tel. 943 741 677



20. KORRIKA



**UNIBERTSITATEA
UNI EIBAR-ERMUA
B.H.I.**



**TANATORIOA
ARMERIA ESKOLA**



**URKO LANTEGIA
HANKAMOTXAK
BERTSO ESKOLA**



**KANTOI
GASOLINDEGIA
I. ZULOAGA INSTITUTUA**



**N-634 EROSKI
AMAÑAKO
JAI BATZORDEA**



**IPURUA KIROLDEGIA
MOGEL ISASI BHI**



**IPURUA
ANEXOKO ATEA
ITZIO IKASTETXEA**



**ELGETA BIDEKO
IPURUA ATEA
ASTIXA**



**XANIA TABERNA
IOSU, PANA, ARRATE
ETA ANGELEN LAGUNAK**



**AEK EUSKALTEGIA
AEK**



**TIO PALANCAS
ASPE (PILOTARIAK)**



**TXOKO TABERNA
1. ITZULIA
EIBAR KE**



**MAIXA TABERNA
1. ITZULIA
RUGBY taldea**



**BIZIKLETA PLAZA
1. ITZULIA
...ETA KITTO!**



**ITXESI DIETETIKA
1. ITZULIA
LAB**



**ARTAMENDI HARATEGIA
1. ITZULIA
DENDARIEN ELKARTEA**



**BM
SOSTOA ABESBATZA**



**ANBULATORIOA
ARRATE KULTUR
ELKARTEA**



**KLUB DEPORTIBOA
KLUB DEPORTIBOA**



**EUKI
GURE ESKU DAGO**



**LAUREL TABERNA
LEGARREKO
JAI BATZORDEA**



**TXOKO TABERNA
2. ITZULIA
HARRERA**



**MAIXA TABERNA
2. ITZULIA
MIRENTXIN**



**EROSKI
2. ITZULIA
SAN ANDRES ESKOLA**



**ZABALETA OKINDEGIA
2. ITZULIA
EH BILDU**



**YRAOLAGOITIA
LIBURUDENDA
EAJ/PNV**



**SAN ANDRES
ESKOLA
EGI**



**AURRERA ERAIKINA
J.A. MOGEL
GURASO ELKARTEA**



**URKIZUKO
BUS GELTOKIA
J.A. MOGEL IKASTOLA**



**GOLOSINA DENDA
GAZTE
MUGIMENDUA**



**KARMENGO ELIZA
URKIZUKO GURASO
ELKARTEA**



**MARIA OSPITXAL
DENDA (Barrena)
LABORAL KUTXA**



**MUTUALIA
EUSKARA
BATZORDEA**



**JUARISTI ESTANKOA
UDALEKO LANGILEAK eta
FIDE AUTOMOTIVE NORMA**



**AUTOPISTAKO
SARRERA
PSE-PSOE**



**MAIL LANTEGIA
TEKNIKER**

gaeko 22:45ean

**Apirilak 7 - barixakua -
EIBARREN**

Gaur 22:43ak aldera sartuko da Korrika Eibarren, Ermutik etorriko diranen eskutik Uni Eibar-Ermuan lekukua hartzian. Hortik aurrera eskurik eskurik ibilliko da, herriko alkarte ezberdiñetako ordezkariak batak bestiarri pasatzen jua ahala eta, 36 parte-hartzailliak ibilbide guztia bete eta jarraixan, agur esango desku 20. Korrikak, Soraluzerako bidia hartuta.



korrika-rekin Eibarren aldaparik ez!

20. Korrika Kulturala Eibarren

Euskeriaren aldeko antxixiketaldixaren aitzakixarekin, girotzen juateko ekitaldi mordua antolatatu dira herrixan. Korrika Kulturala martxuaren lehen egunetan abiatu zan gurian, Biharrian alkartiaren eskutik egin zan "Pikadero" pelikularen emanaldixarekin eta gaztetxiak hartu eban Jaleo, Zarta-k eta Against You taldien kontzertuarekin. Eta, behin hasitta, kultur eskintza zabalarekin jantzi dittue apirilkeko lehen egunak be.

Aurreko zapatuan, Arrate Kultur Elkarteak eta AEK-k antolatutako txangora jua ziranak Izarraitzen barrenak ezagutzeko aukera bikaiña euki eban, Inma Mugerza hidro-geologuak gidatutako bisitan.

Domekan, barriz, giro edarra sortu zan Perlak taldekuak Beleko tabernan eskindutako kontzertuan. Miren Narbaiza eibartarrak Maite, Patxi eta Ilargirekin batera osatutako taldiak "Itzaletatik" diskua zuzenian aurkezteko aprobetxau eban emanaldixa.

Astelehenian, barriz, Jon Maia Soriak zuzendutako "Zura" dokumentala emon eban Coliseo antzokixan eta atzo, barriz, Eibarko Antzerki Jardunaldixekin bat egin-

da "Jokoz kanpo" euskerazko antzezlan eskindu eban Borobil Teatro taldekuak.

Horrekin batera, martitzenian zabaldu eban Topalekuan Korrikari buruzko kartel erakusketia. Domekara arte egongo da ikusteko moduan, egun osuan (tabernatik sartuta).

Eta azken txanpan sartu bagara be, Korrika Kulturalak gaurko beste ekitaldi bat gorde desku: 20:00etatik aurrera Ttun Ttun Brigade taldiak kontzertua emongo dau Beleko tabernan.

Mundu osua... Korrika!

Martxuaren 30etik apirilaren 9ra bittartian Otxandiotik Iruñera, Euskal Herrixan beteko dittuan 2.557 kilometruetatik kanpora be, 20. Korrikak gure mugetatik kanpora be jarraipena izango dau, mundu osuan zihar egingo diran ekitaldixeri esker. Oñ arte Korrika hartu daben tokixen artian Girona, Bartzelona, Valentzia, Madril, Txile, Venezia, Sidney, Melbourne, Paris, Mexiko, Everest, Nepal, Errumania, Budapest, Berlin, Helsinki, Cork (Irlanda)... dagoz eta zerrendiari beste batzuk gehitzen juango jakoz ediziño honetan be, euskeriaren aldeko mezua mundu osuan entzun dein.



Kartel erakusketia Topalekuan.



Irteera Izarraitzera.



Perlak-en kontzertua Belekon.

Katu Kalek indarberrituta egingo dio aurre igoyerako lauko finalari

Iñaki Sanchezek zuzentzen duen taldeak une erabakigarrenean erantzuten dakiela erakutsi zuen aurreko zapatuan, 14 puntuko aldeari buelta eman eta lau onenen arteko finalerako txartela eskuratzeko. Zaila zuten oñatiarrek lortutako aldea gaintzea, baina itxaropenetsu ekin zioten partiduari eta lehen laurdenaren amaierako tarte erdia errekupearatu zuten (19-12). Atsedendian markagailuak 35-22koa erakusten zuen eta, 3. laurdena amaituta,

Katu Kale aurretik zihoan 52-38: hau da, kanporaketa berdinduta zegoen eta 10 minutu geratzen ziren kanporaketa erabakitzeko. Kantxaratu eta berehala lortutako 16-3ko partzialak hegoak eman zizkien eibartarrei, 28 puntuko aldeaz gain, eta oñatiarrek nahiko lan izan zuten abantaila hori gutxitzen. 73-51 izan zen azken emaitza eta Will (20 puntu) eta Arakistain (17) saskiratzaille onenak. Asteburuan lauko finala jokatu dute Ostadar (Eibarkoen lehen aur-



Asteburu gogorraren aurrean dira Katu Kalekoak, baina maila igotzeko itxaropenarekin.

karia), Larramendi eta Cafes Aitona B taldeekin, bai finalerdiak eta baita finala ere partidu bakarrera. Horko garailea zuzene-

an igoko da 2. Mailara eta finalistak azken aukera izango du bi partidura jokatu den azken kanporaketan.



Eibar Eskubaloiko jubenillek aurpegia eman zuten Zarautzen. Maialen B.

Tekniker Eibar Eskubaloia hirugarren jubeniletako Euskadiko txapelketan

Aurreko asteburuan Zarautzen jokatuak jubenil mailako Euskadiko Txapelketaren azken fasean eibartarrek partidu bakarra irabazi zuten eta beste biak galdu. Lauko final horretan Camping Zarautz talde antolatzailea nagusitu zen, jokatuak hiru partiduak irabazita. Atzetik sailkatu ziren Urduliz, bi garaipenekin; Eibar Eskubaloia, garaipen batekin; eta Beristain Elgoibar, garaipenik gabe. Eibartarrak 24-17 galdu zuten barixakuan Camping Zarautzekin, gero zapatuan 31-24 nagusitu zitzaizkion Beristaini, eta domekako azken jardunaldian Urdulizekin galdu zuten 28-18.

Delteco seigarrena izan zen taldeka Eibarko Duetloian

Aurreko zapatu arratsaldean jokatuak Eibarko Duetloian 26. edizioan Euskadiko duatloi sprint txapelketa ere jokatu zen eta horrek 165 parte-hartzaile ekarri zituen irteera puntura. Eibarko kaleak protagonista izan zituen proban Hosain Kaanache nagusitu zen gizonezkoetan eta Lourdes Oiarzabal emakumezkoetan. Delteco Eibar Triatloi Taldeak bost ordezkari izan zituen eta Julen Teran izan zen euretako onena: 9. postuan amaitu zuen, junior onena izateaz gain. Atzetik sartu ziren Gonzalo Saez (33.), Roberto Gartzia (64.), Pablo Zabala (82.) eta Unai Artetxe (126.), taldeka seigarren postuan amaitzeko. Ane Ziaran (13. emakumezkoetan) eta Juanjo Romero eibartarrek ere parte hartu zuten lasterketan.



Kaanache irabazlea helmugara sartzerakoan.



Waterpolo lehen taldeak liga irabazteko borrokan jarraitzen du

Azken jardunaldian Iruñeko Larrainari Orbean 13-6 irabazita, eibartarrek 2. Maila Nazionalera igotzeko play-offerako txartela eskuratu dute. Partidua ez zen nolana hikoia eta, Urbatekoek zelan erantzun zuten ikusita, itxaropenak badaude hurrengo helburua ere eskuratzeko: bihar 16:00etan Waterpolo Navarra C hartuko dute etxean eta ezin dute galdu Euskal Herriko liga irabazteko ametsari eusten jarraitu nahi badute.

Eneko Fuentes Gipuzkoako eskola arteko txapeliduna binaka

Klub Deportiboko ordezkariak, Elgoibarko Danel Zubizarreta lagun zuela, Gipuzkoako eskola arteko txapela jantzi zuen kadete mailan, Oñatikiko bikoteari 18-12 irabazita. Antzuolako frontoian aurreko zapatuan jokaturako partiduan gogotsu eta langile jardun zuten biek ala biek eta horrek eman zien garaipena. Bestalde, Udaberri txapelketaren barruan, Astelenen jokaturako jardunaldian denetarik izan zen: infantil mailan, Camina-Azkargorta bikotea erraz nagusitu zitzaion Debako Euskal Jolaseko ordezkariari (18-3), eta helduen mailan, Gaztañagaren aurkaria ez zen azaldu eta Narbaizak 18-22 galdu zuen Aloña Mendiko Escaleroekin.

Asteburu honetan beste bi partiduko jokatu dira gaur Astelenen, 19:15ean hasita: infantil mailako errendimendu txapelketari dagokion neurketan, Tajuelo-Sanchez Eibarko bikoteak Gure Txeruko ordezkariak izan-



Zubizarreta elgoibartarra eta Deporreko Eneko Fuentes irabazitako sariarekin.

go ditu aurrez-aurre; eta kade- teetan Fuentes eibartarra eta Aretxabaletako Lasagabaster izango dira nor baino nor Uda- berri txapelketako kaiolaren ba- rruko buruz-burukoan.



Irabazlea Garmendipen. Mikel Urkia

Garmendipeko bolatokian etxean baino hobeto jardun zuten Asola Berrikoek

Ganix Rodriguez nagusitu zen aurreko zapatuan, 51 bolarekin, Azpeitiko Garmendipen jokaturako hiru txirloko Gipuzkoako Txapelketako hirugarren jardunaldian. Garaipen horrekin, gainera, eibartarra liderra da sailkapen orokorrean eta baita binaka ere, Ibai Diezekin osatzen duen bikotearekin. Ganixek, Oier Ugarteburuk eta Mikel Urkiak plenoa egin zuten, bederatzi txirilo botata, Elgetako Sebas Aranzabalek moduan. Zortzi txirlorekin geratu ziren Lasturko Joseba Lazkano eta Juan Txurruka. Bihar txapelketako laugarren jardunaldia jokatuko da Elgoibarko San Miguelen.

Caja Ruralekoak nagusitu ziren Valenciagan

Domeka goizean jokaturako probaren 46. edizioan Alvaro Cuadros nagusitu zen Bidebarrietako helmugan, lau txirrindulariz osatutako taldetxoari aurrea hartuta. Laukote hori lau segundora helmugaratu zen eta, atzetik, hasieran tropela izan zena multzo txikitian banatuta sartu zen. Afizionatuen mailako estatuko lasterketarik garrantzitsuenak eguraldia ez zuen lagun izan eta irteerako ia 200 txirrindularitik asko izan ziren erretiratu zirenak. Lizarte taldeko Sergio Samatierrek eta Samuel Sola liderraren taldekideak osatu

zuten podiuma eta bestelako sariak honela banatu ziren: mendia eta lehiakortasuna Caja Ruraleko Jaime Suredarentzat izan ziren, taldekako sailkapena Caja Ruralentzat, tarte-ko helmugak Lizarteko Ivan Morenorentzat eta esprint bereziak Gsport-Valenciako Bernat Font-entzat. Bestalde, Baquéko Txomin Juaristi izan zen lehen euskalduna eta Ampoko Peio Goikoetxea Debabarreneneko lehenengoa. Cuadros irabazleak Eibar KE Fundazioaren sari berezia bereganatu zuen eta baita 23 urtetik azpikoena ere.



Asier Cuevas bigarren maratoi erdiko Gipuzkoako txapelketan

Joan zen zapatuan jokaturako Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian jokoan izan zen distantzia horretako Gipuzkoako txapela eta Eibarko atletak bigarren postua eskuratu zuen, Ander Sagarzazu txapelidunarengandik 2 minutu eta 49 segundotara. Helmugan hamargarren sartu zen Asier Cuevasek gaur egun distantzia luzeagotan badihardu ere, bikain jardun zuen Diego Garciaren omenezko lasterketan eta, batez ere emakumezkoen mailan irabazi zuen Bahreingo Desi Jisari marka egiten laguntzeko egindako erbi lanarengatik.



Probaren azken podiuma, saria jaso zuten txirrindulari guztiekin.

Aste Santuko gimnasia Campusa egingo da Ipuruan 8tik 10era

Gipuzkoako Gimnasia Federazioak antolatuta, bihar hasi eta astelehenera arte iraungo du Eibarren egingo den Aste Santuko Campusa. Eta "opor horien" ostean oinarri mailako klubeko 10 gimnastek Espainiako banakako eta taldeko txapelketan hartuko dute parte, Guadalajaran. Estatu mailan lehiatzen duten Ipuruako gimnastek, bestalde, bihar Gasteizen izango dira Euskal Ligako bigarren fasean.

Aurreko asteburuan, dena dela, ez zuten jai izan Tania Na-

gornaiak, Miriam Merinok, Natalia Urmakaevak eta Helena Jauregik prestatutako gimnastek eta, horrela, Bergaran jokatutako Gipuzkoako txapelketarako sailkapenerako probetan maila eman zuten beste behin. Eskola mailako lehiaketa horretan alebin mailako hiru talde eta infantil B mailako beste bi izan ziren parte hartzen: alebinetan, Amañakoak 4. izan ziren eta Aldatzekoak 5.; eta infantiletan, Ipuruak 1 hirugarren izan zen eta Ipuruak 2 zazpigarren.



Benjamin mailako Ipuruako gimnastak euren diplomekin.

Banakako sailkapenean, Naroa Perez nagusi da eta Maider Diaz bigarren infantiletan. Eta June Araujo bigarren, An-

drea Aldalur eta Itxaiz Otalvaro hirugarrenak eta June Txurruka eta Naroa Garcia laugarrenak alebinetan.



Errugbiko gazteenak Iruñari nagusitu zitzaizkion bi partiduetan

Oraingoan bai 18 urtetik beherakoak eta 16 urte baino gazteagoak, talde biak nagusitu ziren Iruñako jokalarien aurrean. Lehenengok 32-15 irabazi zuten eta gazteenak oraindik errazago nagusitu ziren, 62-12ko emaitzarekin. Emakumezkoen EzDok Eibar taldeak, bestalde, Duriberekin galdu egin zuen 13-5 neurketa berdintsuan. Eta senior mailako gizonezkoen taldeak ligako azken partidua galdu egin zuen Unben Babyauto Zarautz talde indartsuaren aurrean (12-45). Kostaldekoek jokoan zuten maila igotzeko promozioa jokatzea eta aukera aprobetxatu zuten. Eibartarrek 9. postuan amaitu dute liga.

Kadeteentzako txirrindulari proba domeka goizean

Proba berria ipiniko du martxan Eibarko Txirrindulari Elkartek domeka goizean, orain arte Otxoa Memoriala zena I. Eibarko Txirrindulari Elkartea Sari Nagusia izenarekin bataituta. Kadeteen mailako proba hori Gaztetxoak Torneoaren barruko egutegian dago eta 63 kilometro izango ditu. Parte-hartzaileek Untzagatik irtengo dute goizeko 10:30ean eta, handik ordu eta erdira pasata, Urkizuko parkeko helmugara iritsiko dira (12:10ak bueltan).

Eibar FT-ak hilabete gogorrari egin beharko dio aurre

Mendilibarrek gidatzen duen taldeak egutegi bete du hilabete honetarako. Horrela, atzo Las Palmas Ipuruan hartu eta gero, ia atsedetik hartu gabe Vigon jokatuko du domekan Celtaren aurka (arratsaldeko 16:15ean). Eta hurrengo domekan etxetik kanpo jokatu beharko du berriro, oraingo horretan Sevillan, hango Betisen aurrean. Hurrengo astea libre izango du, asteburu horretako partidua astelehenean jokatzea egokitu zaiolako: Athletic izango dugu bisitari Ipuruan hilaren 24an (gaueko 20:45ean). Aste horretako hiru partidutik lehena izango da derbia, eguenean Gasteizen Alaves izango duelako zain (19:30ean) eta domekan Leganes hartuko duelako Ipuruan.

DORI BRAVO VICENTE

(MODESTO BASTARRIKAREN EMAZTEA)

10. URTEURRENA (2007-IV-5)

Hamar urte badira ere, ZURE irribarreak eta samurtasunak GURE ARTEAN jarraitzen dute.



Euskal Herriko Itzuliaren 57. edizioa espero zenaren bidetik joan da orain arte eta Eibarren izango diren bi etapen zain dago azken garailea erabakitzeke. **JULIAN ERASO**k zuzentzen duen taldeak "eromenaren erdian" presaka antolatutako edizioa inoiz baino zabalago dago oraindik eta Eibarko zaletuek aurrez aurre gozatzeko aukera izango dute probarekin. Gaurko etapa, itzuliaren bosgarrena, 17:30 bueltan amaituko da Arraten eta biharko erlojuz kontrakoa 16:30 bueltan hasiko da. Munduko txirridulari onenak ikuskizuna eskaintzeko prest daude.

Eibarren Gaur eta bihar erabakiko da Itzuliaren irabazlea

Urtebetean eta batzuetan denbora gehiagoan egiten den lana bi hilabete-an atera dugu", dio Euskal Herriko Itzuliko zuzendariak. Urtarrilaren 17an sinatu zuen dimisioa Euskal Txirridularitza Antolakuntzako erdiak. Itzuliko arduradunek eta Diario Vasco Kirol Antolakuntzek OCETAko presidentea eta idazkaria zuten eta Euskal Bizikletak presidenteordea eta diruzaina. 2009ko otsailan, ETBk, Jaurilaritzak eta Diario Vasco behartuta elkartu eta horrela jardun izan dute "lau donostiar eta lau eibartar". Donostiarrek laga ondoren, eibartarrek ondo baliatu dira Euskal Bizikleta antolatzen ibilitako urte guzti horietako esperientziak eta aurre egin ahal izan diote sei eguneko proba hau antolatzeari. Uztailaren 29an jokatu den Donostiako Klasikoa ere eibartarren esku geratzen da orain. Eraso presidentearekin batera, Javier Riaño (diruzaina), Juanjo Sebastian (presidenteordea), Iñigo Guerra (idazkaria) eta Javier Ziaran (bokala), bost dira guztira zuzendaritza berria osatzen dutenak. "Hala ere, lehen gurekin jardundako jendea joan

gara berreskuratzen eta gazte jendea ere fitxatu dugu, Beñat Urain eta Amets Txurruka txirridulari ohiak tartean" dio Eraso. Une zailenak pasata (UCIren eskaera ere galdu egin zen bidean, helbide zaharrera bidali zutelako), bi hilabete egindako mirakuluaren emaitza dugu aste honetakoa, "ibilbidea, kudeaketa... ezer egin gabe zegoelako urte hasieran. Nafarroan sartzeagatik beragatik Madrilen baimena 45 egun lehenago eskatu behar da". Eta Eibar inguruko txirrin-

dularitzaren bihotza izaten jarraituko du: "Udalak lau urterako konpromisoa hartu zuen, proba hemendik irten edo hemen amaitzeko". Milioi euro ingurukoa da aste honetako probaren aurrekontua. Datorren urterako datak ere lotuta daude: Itzulia 2tik 7ra jokatu da eta Klasikoa uztailaren 28an.

Donostiako Klasikoarekin ere asmo berriak dituzte eibartarrek: "Aldaketak egingo ditugu, errepide klasikomanoagoren bila. N-1eko tramoak kentzeko asmoa dugu eta ibilbide apurtzaileagoa egin".

Elkartasunaren bidetik

Aurtengo berritasunen artean dago Itzuliak "inmigratioaren gaiarekin arduratuta" Zaporeak taldearekin lotutako elkarlana. Hori dela-eta, protagonismo berezia emango zaio elkarte horri, "irteera eta helmuga puntuetan ezarriko den karparekin". Hor pintxoak salduko dituzte: Eibarko kasuan Untzagan egongo da errefuxiatuen aldeko karpa, gaur 19:00etatik aurrera. Laguntzeko aukera bikaina, eta merke. Bestalde, "gero eta zabalduago dagoen politikari jarraituta", ez da azafatarik izango probaren podiumean.



Julian Eraso martxoaren 23an Donostiako Amara Plazan egindako aurkezpenean.

Lasterketa Eibartik

GAUR:

15:40 (Maltzagatik sartuta)

74 km. helmugara

16:30 (Ermutik sartuta)

38 km. helmugara

17:20 (Maltzagatik sartuta)

8 km. helmugara

BIHAR:

13:43 Kiroldegiko atze aldetik

Eibar / Elgeta / Ubera /

Mekolalde / Soraluze /

Maltzaga / Untzaga

16:33 Azkenaren irteera



MARIXABEL IBARRA GARITAONANDIA

5. URTEURRENA (2012-IV-7)



Gure albotik juan ziñan, baiña zure irribarrea eta maittasuna beti egongo dira gure bihotzetan.

ETXEKOEN PARTEZ





JOSE ANTONIO BLANCO
"Perroantonio" (idazlea)

– *Nolako liburua da?*

Umorezko definizioz eta definizio sarkastiko eta ironikoz osatutako hiztegia da. Nire helburua irakurlea barrez jartzea edo haserraraztea ere izan daiteke. Sies-tatik esnatzea ere bai, akaso. Jendartearen iritzia-aren kontra eginez definitzen ditut hitzak, bestela aspergarria egingo litzaidake. Adibidez, "hileta: hildako bat agurtzeko zeremonia, non bere inguruko oroitzapenak gezurrekin baltsamatzan diren". Ideia originala ez da nirea, Ambrose Bierceren hasitako bidea jarraitzen dut. 20 urtez hainbat egunkari amerikarretan argitaratu zituen bere definizioak eta 1911.urtean "Deabruaren Hiztegia" izeneko liburuan bildu zituen guztiak. Nik 1986. urtean irakurri nuen bilduma hori lehen aldiz eta liluragarria

"Norbaitek atzamarra sartu behar du konfort orokortuaren begian"

"Te voy a hacer una autocrítica. Diccionario para entender a los humanos" liburuaren aurkezpena egingo du Jose Antonio Blanco (Perroantonio) egileak. Perroantonio Barakaldon 1961. urtean jaio eta Eibarren bizi den idazlearen "amorruzko bertsioa" da. Filologoa eta kazetaria da eta bi poesia liburu ere argitaratu ditu: "Dermatológicas" eta "Otros poemas". Aurkezpena 24an izango da (19:00etan, Portalean) eta Antonio Riverak egingo ditu aurkezle lanak.

iruditu zitzaidan. Nire liburuan Bierceren aldean zehatzagoa izaten saiatu naiz, lehorragoa eta ez hain zinikoa. Hala ere bere garraztasun mailari eutsi dudala esan dezaket.

– *Zeintzuk dira hiztegia sartzeko aukeratu dituzun hitzak?*

Kultura, politika, ohiturak, erlijioa, sinismenak, ekonomia, modak eta topikoak izan ditut irizpide eta gai horiekin lotutako hitzak aukeratu ditut. Ez du mezezi arkatx bat zer den azaltzeak, baina bai agian igarle bat definitzeak. "Igarle: etorkizuna igartzeko eta kaikuak detektatzeko ahalmena duen pertsona, baina alderantzizko ordenan". Bizitza sozialak badu iruzur puntua eta norbaitek atzamarra sartu behar du konfort orokortuaren begian.

– *Nolako harrera izaten ari da liburua?*

Penintsula osoan zehar zabalduta da dagoeneko eta lau hilabete daramatza merkatuan soilik. Saltzen dela ematen du. Ez dago publiko konkretu bati zabalduta, baina umoredun jendeak gozatuko du bakarrik liburuaz eta, batez ere, bakoitzaren buruari eta ohiturei barre egiten dakiten pertsonek. Aste honetan bertan nire editoreak komentatu didanez, irakasle batek ikasleekin liburuaz lantzeko asmoa agertu du. Juan Carlos errege ohiak esango lukeren bezala, "me llena de orgullo y satisfacción". Dena dela, espero dut irakasleak gizarte, filosofia edo lengoia irakastea eta ez matematika edo gorputz heziketa, oso gutxi hitz egiten baitut azken bi gaiez.

Artisten Elkarteko enakusketa aberats eta anitza

Aurreko asteko barixakuaz geroztik Eibarko Artisten Elkartean erakusketa kolektiboa ikus daiteke Portalean. Apirilaren 23ra arte Artisten Elkarteko 45 bat kidek sortutako artelanak ikusteko aukera izango da. Erakusteko eraman dituztenen artean denetarik dago: koadroak, egur-taillak, zeramika, argazkiak, marrazkiak, eskulturak... era guztietako teknikak erabilia sortutako artelanak, oso estilo anitzekoak, gainera.




Euskerazko ipuin kontakizun ederra

Illunabarrian egitasmoaren barruan, Xirrikietuen Jostunek saio ederra eskaini zuten martitzen arratsaldean Portalean, ...eta kitto! Euskara Elkartean eskutik. "Beldurrak" izenburuko kontakizuna gitarrarekin lagunduta egin zuten eta, ikustera joandakoek esandakoaren arabera, "ederto pasatzeaz gain, tarteka hunkitu ere" egin ziren.



“Adingabeak eta internet” gurasoentzako ikastaroa UEUn

Apirilaren 26an hasiko da Markeskuan “Adingabeak eta Internet: arriskuak eta nortasun digitala” izenburuko ikastaroa, UEUren eskutik udaberriko eskaintzaren barruan. “Zein arrisku daude Interneten gazte-txoentzat?”, “Nola prebenitu ditzazkegu gurasoek arrisku horiek?”, “Zer nolako garrantzia du nortasun digitalak?”... horrelako galderak guraso askoren buruan bueltaka ibiltzen dira eta, horrekin jakitun, kezka horiek argitzen laguntzeko asmoz antolatu dute ikastaroa. Izan ere, familiek adingabeen errealitate digitala ezagutzea funtsezkoa dela uste dute adituek: “Horregatik, Eibarko adingabeen errealitate digitala aztertzen ari gara. Hori egiteko, Eibarko ikastetxe guztietara jo genuen, LH 5-6 eta DBH 1-2ko ikasleek galdetegi labur bat (modu anonimoan) osatzea eskatuz eta euretako askok bete egin dute”. Asmoa, ikasleen artean egingdako galdetegiko emaitzak ikastaroa prestatzeko oinarria izatea da, hau da, kurtoa erantzunen arabera izango da: “Hori dela-eta, Eibarko gurasoei dei berezia egin nahi diegu ikastaro honetan parte hartu dezaten, gai honetan hausnarketa egin eta irizpideak argitzeko. Gainera, Eibarko Udalak diruz lagunduko du”. Ikastaroa apirilaren 26an eta maiatzaren 3an, 10ean eta 17an izango da, 17:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako edo matrikula betetzeko www.ueu.eus helbidera jo daiteke.



Hasi da “Liburu hausgarriak” lehiaketaren edizioa liburutegian

Apirilaren 2az geroztik “Li(buru hausgarriak)” lehiaketaren 8. edizioa dago martxan Juan San Martin liburutegian. Ekainaren 14an amaituko den jolasa “irakurketa sustatzeko asmoarekin egindakoa” dela diote arduradunek eta, horrez gain, jokoan egiten dituzten galderei esker ingurunearen eta liburutegiaren inguruan ezagutza ere bultzatzen dute. Lehiaketa Lehen Hezkuntzako 2. mailatik gorako umeei zuzenduta dago: “Li-buruak irakurri behar dituzte eta, bueltatzerakoan, Eibarri eta liburutegiari buruzko galderak egiten zaizkie. Zuzen erantzuterakoan buru-hausgarri bat osatzen joateko pieza bana lortzen joaten dira eta jokoa bertan ezkatzen den argazkia asmatzean datza”.




Sostoaren emanaldi sakroa bihar Karmelitetan

Urteroko moduan, Sostoa abesbatzak kontzertu sakroa emango du Karmeldarren elizan, bihar 20:00etan. Kontzertuaren ardatza Ama Maria izango da eta, beraz, berari eskainitako kantuak eskainiko dituzte: “Flor de las flores”, “Goizeko Izarra”, “Madre de Dios”, “Maris Stella”, “Regina coeli”, “Magnificat”, “Aver Maria”... Eibartarrekin batera, Donostiako Goratzar abesbatzak ere abestuko du. Aurretik, 19:00etan hildako senideen aldeko meza izango dute eta Sostoa horretan ere hartuko du parte.

“Elkadura prozesu onkologikoetan” sukaldaritzatailerra

Minbiziaren Aurkako Elkartek sukaldaritzatailerra antolatu du apirilaren 27rako, tratamendu onkologikoan daudenek, sendagai gogorren ondorioz izaten dituzten bestelako arazoak (beherakoa, botakagura, jateko gogo eza...) arintzeko asmoz. Horrelakoei aurre egiten laguntzeko, elkarteak errezeta liburu bat argitaratu du, kasu bakoitzean janari egokia zein den jakitera emateko. Tailerrean Oskar Treviño sukaldariak liburuan agertzen diren hainbat errezeta prestatuko ditu. Tailerra Izarra elkartearen (Untzaga Plazan) izango da, 18:30ean eta parte hartu nahi duenak 943 20 24 94 telefono zenbakira deitu edo bajodeba@aecc.es helbidera idatzi dezake (izen-ematea doan da).



San Juan jaietarako lehiaketak

Udalak aurtengo San Juan jaietarako lehiaketa bi, jaiak iragartzeko kartel-lehiaketa eta festetan larregi edatearen kontrako umorezko pegatinarena antolatu ditu eta horiei buruzko deialdia ere egin du. Batean zein bestean parte hartu nahi dutenek maiatzaren 12ra arteko epea izango dute lanak aurkezteko. Bete beharreko baldintzak ikusteko eta bestelako informazioa jasotzeko eibar.eus webgunean begiratu daiteke edo, bestela, Pegoran galdetu.



LEIRE NARBAIZA

Korrikia

Gabian pasauko da Korrikia Eibartik. Zelako emozioñua! Baiña, lagunok, Korrikiak emozioatzeko eta antxixiketan egitako baiño gehixagorako balio bihar desku! Emon deixon euskeriari lekua egunerokuan! Zelan, baiña?

– Euskeraz bizi zarien euskaldunok: lelehengo berbia euskeraz beti, sorpresa eder asko jasoko dituduzue. Pazientzia izan ikasten dabizenekin, eurek be euki bihar dabe gure hizkuntzan berba egitako aukeria, eta animazue. Zaindu darabilzuena, ez zaitte narrasak izan. Ez erabili *euskañola*, gai zarielako hori berori euskeraz esateko. Irakorri gehixago, ez detsue kalterik egingo-eta!

– Euskeria jakin baiña gitxi erabiltzen dozenori: emon pausua eta egizue berba gehixago, inguruan seguru dakuzela beti euskeraz egitten daben nonor. Atrebitzen ez bazarie komentau konfiantzako baten batekin, aldekietia errezago egitako. Esieran biolentua egingo jatzue, baiña danok pasau gara hortik.

– Euskeria ikasten zabizendako: Esplotau zuen onduan dagozen euskaldunak! ez dabiz, ba, esaten ikasi bihar zendueta? Ba, ointxe da euren txandia laguntzeko! Lotsia emoten badetsue, hasi sosiguz, esaldi laburrak botatzen. Umiak horretarako primerakuak dira. A! Milla esker esfortzuagaittik! Eta danori **animo**, karrera luzia da hau-eta, fondokua, egunero egin biharrekua. Tipi-tapa, tipi-tapa, poliki, gero korrika juateko! Eibar euskalduna lortzeko!

Gaur zabalduko ditu ateak “Egungo islak” Institutuko ikasleen erakusketak

Gaur arratsaldean, 19:00etan zabalduko ditu ateak “Eibarko Ignazio Zuloagaren egungo islak” Portaleko erakusketa aretoan. Gaurtik aurrera datozen bi asteetan, apirilaren 30era arte egongo da bisitan joateko moduan, betiko ordutegian: martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era. Urteroko martxan, aurtien ere institutuan Arte Batxilergoa ikasten ari diren gazteen artelanak egongo dira ikusgai, beste batxilergoetan ari diren hainbatek egindakoekin batera. Gaur inauguratuko duten erakusketak kurtsosan zehar klasean ematen dituzten ikasgai ezberdinetan ikasleek landu dituzten orotariko lanak bilduko ditu: Marrazketa Tekniko eta Artistikoa, Diseinuaren oinarriak (barne-diseinua, grafikoa eta industrialak), Margogintza, Zeramika, Argazkigintza, Ikusentzunezko kultura... Artista gazteek gelan egiten joan diren lanak erakutsiko dituzte eta ez erakusketarako propio sortutakoak. Hortik erakusketaren izenburua: “Ignazio Zuloaga Institutuaren Egungo Islak”. Eki-hau 1999-2000 ikasturtean jarri zen martxan lehenengoz eta urteekin finkatzen joan da. Besteak beste ikasleentzat euren lanak herritarrei erakusteko eskaparate bikaina da erakusketa. Aurtengo ediziorako hainbat berritasun prestatu dituztela aurreratu dute eta horien artean zalantza barik jendearen arreta erakarriko duen bat izango ei da: gaurkotasan handiko gaiari lotutako hormairudi bi, 4x2 metroko bi mural egongo dira ikusgai.



Paradisuan bezain ondo Harixa Emoten

Gustora egon ziren martitzenean Harixa Emoten euskerazko irakurketa taldekoak, Arrate Egaña idazlearekin batera “Paradisua” bere liburuaz berbetan, betiko moduan Antxon Narbaizak dinamizatutako saioan. Hurrengo idazle gonbidatua Pello Lizarralde izango da: maiatzaren 2an joango da Portalara, “Elur bustia” lana irakurleekin komentatzera.

Deporreko erakusketa berri bi apirilerako

Hileroko martxari jarraituta, apirilerako argazki erakusketak antolatu dituzte Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek: hilaren amaiera arte Ambigú tabernan Cristina de Arribaren lanak egongo dira ikusgai eta Portalea tabernan, berriz, Jose Ignacio de Castrorenak.





Morgan Taldearen emanaldia ERMUAN

Gaur 22:15etik aurrera, Madrilgo "Morgan" taldeak kontzertua emango du Ermua Antzokian, "North" lehen lana aurkezten. Carolina de Juan (Nina) abeslari eta pianojoleak gidatzen duen taldeko kideen artean Ekain Elorza baterajole berriztarra dago. Sarrerak 10 euro balio du.



Euskadiko Boxeo Txapelketa SORALUZEN

Euskadiko Boxeo Txapelketa jokatu da bihar zapata, 19:00etatik aurrera, Sorluzeko Arane Kiroldegian. Txapelketarako sarrerak aurrez erreserbatu daitezke, 10 eurotan, 67332540 telefono zenbakian eta, bestela, bihar txarteldegian erosteko aukera ere izango da, 15 eurotan.



VII. Kilimon Trail domekan MENDARON

Mendaroko Txirrindulari Elkartek antolatuta, domekan jokatu da VII. Kilimon Trail mendi-lasterketa eta, horren harira, izen handiko korrikalariak izango dira domekan Mendaron. Lasterketa 10:00etan hasiko da, 23 kilometro pasatxoko ibilbidea izango du, eta 1.600 metroko desnibela gainditu beharko dute korrikalariak.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

hildakoak

- Milagros Arrillaga Etxaniz. 92 urte. 2017-III-31.
- Felix Ormaetxea Etxeberria. 94 urte. 2017-III-31.
- Jose Antonio Caño Torrecilla. 76 urte. 2017-IV-4.

jaiotakoak

- Hegoi Mujika Larrañaga. 2017-III-28.
- Ander Velez Chavez. 2017-III-28.
- Omar Bakkali. 2017-III-31.
- Miren Aliende Ulazia. 2017-III-31.

farmaziak

- Barixakua 7
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 8
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 9
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 10
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Martitzena 11
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztana 12
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 13
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Barixakua 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Zapatua 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 17
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Martitzena 18
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguaztana 19
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 20
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Barixakua 21
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI - 2017AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

2	8	9	7	6	4	3	1	5
6	3	4	2	1	5	9	7	8
7	1	5	9	3	8	4	6	2
4	5	2	6	9	1	8	3	7
3	6	7	8	4	2	5	9	1
8	9	1	5	7	3	6	2	4
9	4	6	1	8	7	2	5	3
5	7	3	4	2	9	1	8	6
1	2	8	3	5	6	7	4	9

3	2			7		4	8	
	5							
		1	2			3	5	
9		7	8					
2			9	3				1
				6	5			9
6		2			8	1		
							9	
1	4		5				3	7

Barixakua 7

GURE ESKU DAGO

17:00. Gure Esku Dago Txosna, Korrikarako girotzeko. Txosna zabaltzea eta txokolate jana. Ogitartekoak, pintxoak eta edariak.
00:00. Txosna ixtea. Untzagan.

TXIRRINDULARITZA

17:30. Euskal Herriko Itzuliaren 5. etaparen amaiera. Arraten.

DISKO SINAKETA

18:00. Golazen disko sinaketa. El Corte Inglesean (euskal literatura guner berrian, 3. solairuan).

SINADURA BILKETA

18:00/20:00. Presoen aldeko sinadurak bilduko dituzte Ireki ekimenaren barruan. T. Etxebarrian (Depor parean).

ZINE-FORUMA

19:00. "Pago Justo", Pagatxaren eskutik. Portalean.

PINTXO-POTEA

19:00. Zaporeak-en pintxo-potea, errefuxiatuei laguntzeko. Untzagan.

KONTZERTUA

20:00. Ttun Ttun Brigade taldea, Korrika Kulturalaren barruan. Beleko tabernan.

KORRIKA GIROTZEKO JAIA

22:00. 'Zirkoa' gai moduan hartuta mozarrotzea.
23:00. Eibarko Gazte Mugimenduak lekukoa hartzea (gaztetxe parean).
00:00. Kontzertua, Mugi Panderoa taldearekin. Gaztetxean.

20. KORRIKA

22:43. 20. Korrika ailegatuko da Ermutik. Uni Eibar-Ermua BHI paretik hasiko da Eibarko ibilbidea eta Osintxurako bidean agurtuko dugu (23:22).

Zapatua 8

TXIRRINDULARITZA

13:40. Euskal Herriko Itzuliaren azken etapa. Eibar-Bergara-Eibar. Irteera kiroldegi atzetik.

KONTZERTUA

20:00. Sostoa abesbatzaren kontzertu sakroa, Donostiako Goratzar abesbatzarekin batera. Karmeldarren elizan.

Domeka 9

TXIRRINDULARITZA

10:30. I. Eibarko Txirrindulari Elkartea Sari Nagusia. Untzagatik irtenda.
12:10. Helmuga, Urkizun.

KALEJIRA

11:00. Usartza txistulari taldearen kalejira.

ASTE SANTUA

11:00. Erramu Domeka: erramuen bedeinkapena eta prozesioa. Azitaingo elizan.

Eguena 13

ASTE SANTUA

17:00. Ostegun Santua: Jaunaren Azken Afaria. Azitaingo elizan.

Barixakua 14

ASTE SANTUA

17:00. Ostiral Santua: Jaunaren nekaldia eta heriotza. Azitaingo elizan.

Zapatua 15

ASTE SANTUA

17:00. Larunbat Santua Pazko Gaubeila. Azitaingo elizan.

Domeka 16

ASTE SANTUA

11:00. Pazko Igandea eta Jaunaren piztuera ospatzeko, meza nagusia. Azitaingo elizan.

Eguaztena 19

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 20

KALEETAN KANTUZ

17:45. Kaleetan Kantuz dantzak. Untzagako jubilatuetan.
19:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

ODOLA-EMATEA

18:30. Odol-emaileentzat odola ateratzeko saioa. Anbulatorioan.

KALERATZEAK STOP

19:00. Kaleratzeak Stop plataformakoekin bilera irekia. Portalean.

Erakusketak

Apirilaren 9ra arte:

- KORRIKAREN edizio guztietako kartelen erakusketa. (*Topalekuan*)

Apirilaren 22ra arte:

- "MIRADORES" LUCENA MORALEN argazkiak. (*El Corte Inglesean*)

Apirilaren 23ra arte:

- EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN erakusketa. (*Portalean*)

Apirilaren 30era arte:

- CRISTINA DE ARRIBASEN argazki-erakusketa. (*El Ambigu tabernan*)
- JOSE IGNACIO DE CASTROREN argazki-erakusketa. (*Portalea jatetxean*)
- "EIBARKO IGNACIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK" erakusketa. (*Portalean*)

Aste Santuko ORDUTEGIAK

IPURUA Kiroldegian

13an: (09:00-13:00)

14an: (09:00-13:00)

15ean: (09:00-13:00 eta 16:00-20:00)

16an: (09:00-13:00)

17an: (09:00-13:00)

UNBE Kiroldegian

13an: (09:00-20:00)

14an: (09:00-20:00)

15ean: (09:00-20:00)

16an: (09:00-20:00)

17an: (09:00-20:00)

ORBEA Kiroldegian

13an: (09:00-14:00)

14an: (09:00-14:00)

15ean: (09:00-14:00 eta 17:00-20:00)

16an: (09:00-14:00)

17an: (09:00-14:00)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, AROA, martitzenian lau urte bete zenuazuen-eta. Musu haundi bat Marko eta etxekuen partez!



Zorionak, HIART, haraiñegun sei urte egin zenuazuen-eta. Musu haundi bat, bihotzez, osaba Ibon eta izeko Yoliren partez.



Zorionak, LIZAR Aranberri Zubizarreta, datorren barixakuan 4 urte beteko dozuz-eta. Lau milla musu, etxeko danon partez.



Zorionak, MAITANE, domekan bi urte egingo dozuz-eta. Musu bat Marce, Encarni, Juan Luis eta Marije aitxitxa eta amamen partez.



Zorionak, NAHIA!!!, gure neska haundixak zazpi urte egin zittuan-eta. Musu haundi bat etxekuen eta famalixa guztiaren partez.



Zorionak, JULEN, bixar hiru urte egingo dozuz-eta, mutil haundi! Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Unairen partez. Jarraitu holan!



Zorionak, IRAIA, atzo 6 urte bete zenuazuen-eta. Musu haundi-haundi bat famelixaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, EKHI, gaur lau urte betetzen dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Adeiren partez.



Zorionak, JON, txapeldun!, atzo zazpi urte egin zenuazuen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MAITANE, bixar 14 urte beteko dozuz-eta. Oso ondo pasatu! Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, PAULA, astelehengan sei urte beteko dozuzelako. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Ongi etorri, HEGOI, martxuaren 28tik gure artian zagoz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, IGOR, txapeldun! Oso ondo ospatu zure 6. urtebetetzia. Famelixa guztiaren partez!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

8an: 19:45, 22:30

9an: 20:00

10ean: 20:30

"El viajante"

Zuzendaria: Asghar Farhadi



(2 ARETOAN)

8an: 17:00, 19:45, 22:30

9an: 17:00, 20:00

10ean: 20:30

"Mañana empieza todo"

Zuzendaria: Hugo Getin



(ANTZOKIAN)


8an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

9an: 17:00^(1 Aretoa), 20:00

10ean: 20:30

"Life (Vida)"

Zuzendaria: Daniel Espinosa



(ANTZOKIAN)

8an: 17:00

9an: 17:00

"Los Pitufos"

Zuzendaria: Kelly Asbury



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 631-649850.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Ipuruako Eroskiko behealdean. 23 m². Sarbide ona. Oso egoera onean. Tel. 652-764566.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Eibar erdialdean (Untzagan). Tel. 606-083992.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 6 urteko esperientzia Alzheimer gaixoeekin. Gida-baimenarekin. Tel. 688-619277.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 648-010982.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-720266. Dunia.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernak eta pegoarak garbitzeko. Tel. 632-228105.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernak eta pegoarak garbitzeko. Tel. 632-334008.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernak eta pegoarak garbitzeko. Tel. 631-013153.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-247899.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-895861.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 665-974354.

– Gizonezkoa eskaintzen da peoi, zaindari, garbitzaile... moduan lan egiteko. Tel. 631-649850.

– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-441920.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gaez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 628-318570.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-193840.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 631-887341.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-737903.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 653-156403.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta pegoarak garbitzeko. Tel. 653-010861.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-204245.

– Emakume euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-935160.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 648-470485.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-286792.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 664-225040.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldelaguntzaile jarduteko. Tel. 634-437852.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez ere. Tel. 690-134485.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 617-537421.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-929576.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 658-310620.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-833905.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-057185.

– Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-026510.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 648-039187.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-066630.

– Gizona eskaintzen da sukaldari jarduteko (esperientzia), garbitzaile profesional moduan eta barra edo mahai laguntzaile. Tel. 625-997599.

– Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-669488.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-012834.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 697-665452.

– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-983250.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-763558.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Disponibilitate osoa. Tel. 632-892384.

– Emakumea eskaintzen da gaez edo orduka nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 603-386326.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 633-072144.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 658-158036.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-488692.

– Gizonezkoa eskaintzen da baserriko lanetan edo bestelakoetan jarduteko. Tel. 688-302653.

– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Orduka. Tel. 669-667790.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-190614.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-602883.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Interna. Tel. 638-338816.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta dendari moduan. Tel. 632-426847.

– Neska euskalduna eskaintzen da pegoarak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 617-571210.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko. Tel. 676-006915.

– Kamarero eta sukaldari profesional euskaldunak behar dira. Ezinbestekoa autoa eta erreferentziak. Bidali curriculum: 39 Postakutxa / 20870 / Elgoibar.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Eibarko Kids and Us-ek irakasleak behar ditu 2017-18 ikasturterako. Ingeles maila altuarekin (C1 titulua gutxienez) eta umeak gogoko izatea eta inplikazioarekin. Curriculum: direccion.eibar@kidsandus.es

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailetako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Ohe artikulatua salgai. Oso egoera onean eta guarekin. Tel. 94-4305487.

– Mobil-homea (42 m²) salgai Bañaresen (Errioxa). Teilatu bikoitza, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna duxarekin. Aire egokitua. Prezio interesgarria. Deitu 20:00etatik 22:00etara. Tel. 943-031477.

– Rin Gway piano elektriko salgai. T68838 modelo. 350 euro, negoziagarriak. Tel. 647-155908.

– Lehen jaunartzerako soinekoa salgai. Eraibili gabe. Prezio onean. Tel. 653-010861.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

25. URTEURRENEKO EDIZIO BEREZIA 5.000€-RAINOKO DESKONTUA



Hyundai dagoeneko 25 urte bete ditugu zure ondoan. Eta zure aldamenean egindako denboran, munduko 5 Fabrikatzaile onenetako artean kokatu gara, 3. Marka fidagarriena bihurtu eta hirutan Espainiako Urteko Autorik Onena izateaz gain. Hori ospatzeko, eta gure urteurrena amaitu baino lehen, 25. Urteurrenoko Edizioa kaleratu dugu, aparteko ekipamendua eta 5.000€-rainoko deskontua dituen edizio berezia.

Hurbil zaitetz hilabete honetan zure kontzesionariora eta ospatu egizu gurekin.



OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO
www.oarsocar.com

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17 943 74 14 80

OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1 943 49 48 30

BEASAIN

Errepide Nazionala, 1 943 80 40 54

IRUN

Juan Thalamas, 43 943 63 97 69



Hyundai Tucson Gama: CO₂ Emisioak (gr/km): 119-147 Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-6,3.
i20 Hyundai Berria Gama: CO₂ Emisioak (gr/km): 110-130. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,2-5,6.
i30 Hyundai Berria Gama: CO₂ Emisioak (gr/km): 97-102. Kontsumo mistoa (l/100km): 3,7-4,8.

25. Urteurrenoko Hyundai i20 1.1 CRDI 75CV (55,2kW)-ari gehienezko deskontu aplikagarria. Sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta berria erositzeko Hyundai auto bat entregatzearen aplikagarria den Zure Hyundai Berritzeko Deskontua barne. Eskaintza 2017/04/30era arte da balioduna. 3. marka fidagarriena, 2016ko JD POWER-en arabera. *Hyundai Motor España S.L. l/100 km mugarik gabeko 5 urteko Hyundai berriei komertziala Hyundai Kontzesionarioaren Sare Ofizialean erositako autoetan soilik aplikatuko da, zerbitzu pasportak diogen termino eta baldintzetan. Bisualizatutako modeloak: Tucson 25. Urteurrena, i20 25. Urteurrena, i30 25. Urteurrena. Bermearen eta eskaintzaren baldintzak Hyundai kontzesionarioarean edo www.hyundai.es helbidean galdetu.

11. Gin Tonic lehiaketa

Maiatzaren 5etik 7ra
Maiatzaren 12tik 14ra

Finala:
Maiatzaren 19an
Untzaga plazan



Informazioa eta oinarriak:
etakitto.eus/berbetan
943 200918



%30 des
kon
tua

**EGUZKITAKO
BETAURREKOEN
bilduma BERRI
GUZTIETAN**

Gure betaurreko
guztiak bilduma
berrietakoak dira

www.multiopticasgipuzkoa.com



**ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA
IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA**

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan